

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Gobernuak “Basozainak/Guarderío de Medio Ambiente” sortu du eta langileei antolaketa eta zeregin berriak hornitu dizkie

Erregulazio berriak nabarmendu du orain arte Oihanzaingo deiturikoaren zereginen aniztasuna eta basozainen koordinazio eta parte-hartze mekanismoak sendotu ditu

Asteazkena, 2019.eko urtarrilak 30

Nafarroako Gobernuak, gaurko bilkuran, foru dekretu bat ontzat eman du. Haren bidez, orain arte deituriko Oihanzaingoaren langileei antolaketa eta zeregin berriak hornitu zaizkie, eta hemendik aurrera “Basozainak/Guarderío de Medio Ambiente” deituko da.

Araubide berriak existitzen den araudia eguneratzea du helburu, 2005ean ontzat emana, kolektibo honi dagozkion zereginen garapena eraginkorrago bilakatzeko, bertako kideek dagozkien helburuak lortzearen aldeko ekarpena eginez.

Foru dekretuak koordinazio mekanismoak sustatu ditu eta lanpostuen egitura hierarkikoa kendu du. Zehazki, mugapen bakoitzean koordinazio unitate bat sortu da eta hiru hilez behiko bilerak ezarri dira Oihanzaingo arloko departamentuko unitate eskudunen eta mugapen bakoitzeko koordinazio unitateen artean.

Horrez gain, “Basozainak/Guarderío de Medio Ambiente” izen berriarekin, baso ingurumena babestearekin eta aprobetxamenduari lotutakoaz gain, kolektibo honi dagozkion zeregin anitzak nabarmendu nahi dira, besteak beste: baso fauna eta florarekin lotutakoak, ibai ingurumenaren eta babestutako guneen babes, industria esparruko ingurumen kalitatea eta ingurumen heziketa. Egiturak ingurumenaren arloan, eskudun den Nafarroako Gobernuaren Egiturari atxikita jarraituko du.

Zereginak eta antolaketa

Dekretu berriarekin, ingurumeneko guarda/basozainari eta koordinatzaileari garrantzia emango zaie, hartara, langile guztien parte-hartzea eta komunikazioa sustatuko dira. Antolaketa berri honekin, basozain nagusiaren eta alboko basozain nagusiaren lanpostuak desagertuko dira.

Foru dekretuan adierazitakoaren arabera, Basozainak/Guarderío de Medioambiente-ko langileei honako zeregin hauek dagozkie: baso fauna eta flora zaintzea, ikuskatzea, ikertzea eta kudeatzea, ibai ingurumena babestea, basoak babestea eta aprobetxatzea, babestutako guneen babes eta kudeaketa, Nafarroako baso ondarearen lursailak kudeatzea, abelbideak babestea, jarduera zinergetikoaren kontrola eta arrain-

hazkuntzaren jardueraren kontrola.

Horrez gain, bere lanaren barruan honakoa jorratu beharko dituzte: ingurumeneko larrialdietan kolaboratzea, salaketak eta ikuskapen aktak izapidetzea, euren eskumeneko berezko esparruei dagozkien arau-haustekak ikertzea ingurumen arloko araudia betetzearen alde egitea.

Dekretu berriak, halaber, mugapenen berrantolaketa ekarri du, garapen eraginkorragoa gauzatzeko helburuarekin, eta giza eta baliabide materialen banaketa arrazionalizatu egin du.

Lekuan bertako urteko jardunaldia 1.512 ordutan ezarri da eta igande eta jaiegunetako lana urteko ordu guztien %30era mugatu da. Horrez gain, aurreikusi da 55 urtetik gorakoek zerbitzu aktiboan jarraitzea edo administrazio egoera berezia pasatzea aukeran izatea.

Antolaketari dagokionez, koordinazio mekanismo berriak sortu direla azpimarratu behar da. Horrela, mugapen bakoitzean koordinatzaile bat ezarri da eta haren zeregin nagusiak langileen lana antolatzea eta ikuskatzea izango dira. Lanpostu hau merituen bidezko lehiaketaren bitartez beteko da, si urteko epe batez.

Era berean, langileek antolaketaren eta funtzionamenduaren alderdi garrantzitsuetan barne esparruan gehiago parte hartu ahal izateko, bileren araubide bat ezarri da, gutxienez hiru hilez behingoa, departamenduko unitate eskudunen eta mugapen bakoitzeko koordinatzaileen artean. Azken horiek mugapeko langileekin batera parte hartu ahal izango dute.

Dekretua argitaratu eta hurrengo hilabetetan, eta xedapen gehigarrietan adierazitakoarekin bat eginez, Koordinazio unitate berriak sortu, Basozainak/Guarderío de Medio Ambiente-rako Plan Zuzendari bat osatu, Prestakuntza Plan bat eta Zerbitzu Gutuna argitaratu beharko da. Azken hilabeteotan proiektu horietan guztietan lan egiten ari da konpromiso hauek guztiak betetzeko helburuarekin.

Dekretua ontzat emateari esker, aurrera pausu bat gehiago eman da Basozainak/Guarderío de Medio Ambiente kidegoa berritzeko prozesuan, Zerbitzu gisa konfiguratzearekin eta egindako deialdi berriekin batera, Basozainen 31 plaza, 15 txanda askean, 15 barne promozioan eta bat minusbaliotasuna dutenentzat erreserbatuta.